

eres) en el pretérito imperfecto en *n-intz-an*, *itz-an* (yo era, tu eras, que se pronuncian tambien *n-intz-an*, *intz-an*, en el condicional *ban-intz*, *be-intz*, *bal-intz* (si fuera yo, si fueras tu, si fuera él); y asi sucesivamente en todos los demás tiempos y personas, en los cuales puede comprobarse siempre la presencia de la radical, aunque se halla á veces reducida á una sola letra.

Es, pues, indudable que la voz *izan* es el infinitivo natural del verbo ser, y que su radical *iz* de quien recibe su significado, ha formado toda su conjugacion. Otro dia probaremos que el diptongo *eu* de los verbos *euki* y *eutzi* es el infinitivo natural y primitivo del auxiliar activo *haber*, cuya conjugacion está cimentada sobre la raiz citada, y entre tanto, Sr. Director, dándole á V. gracias anticipadas por la insercion del presente, se repite de V. siempre affmo. S. S. Q. B. S. M.

JOSÉ DE GUISASOLA.

## EUSKALDUNENEI.

«*Euskal-Erriyan sortzen,  
Ameriketan iltzen.*»

COMPOSICION SEÑALADA CON **MENTCIÓN HONORÍFICA** EN EL  
CERTÁMEN CIENTÍFICO, ARTÍSTICO Y LITERARIO DE PAMPLONA.

### I.

¡Zér gozoro bizitzen dan,  
Bat jayo dan erriyán!  
¡Zér gozoro, aur zanean  
Jostatzen zan tokiyan!  
¡Zér gozoro, Jaungoikozko  
Pake maitagarriyan,  
Esertzen dan, aita batek  
Landutako zelaiyan!  
¡Zér gozoro jarrikan  
Zuaitz<sup>1</sup> baten azpiyan

Ikusten dan seguruza<sup>2</sup>  
Soroaren erdiyan!  
¡Zér gozoro, zuaitzaren  
Bertistezk<sup>3</sup> jantziyan,  
Ikusten dan garau<sup>4</sup> piña  
Narotasun<sup>5</sup> aundiyan;  
Sagar eder ureztauk  
Mardulikan saroiyan,<sup>6</sup>  
Mats-mordoak, zintziliakan  
Ibarreko mastiyan;

(1) Arbol.—(2) Mies.—(3) Esmeralda.—(4) Fruta.—(5) Abundancia.—(6) Floresta.

Gaztañ-morkol arantziyak  
 Gaztañadi guriyan;  
 Inchaur bikaiñ gozotsuak  
 Ibai-bazter galaiyan!  
 ¡Zer gozoro, kantatutzen,  
 Ikusten dan sasiyan  
 Chori luma kizkurduna,  
 Poz-atsegina biziyan!  
 ¡Zér gozoro, begiratzen  
 Dan lastozko kabiyan  
 Errechiñol maitatsua,  
 Umeak gorde naiyan!  
 ¡Zer gozoro dan ikusten,  
 Egunaren sentiyan,  
 Eguzkiyan etorrera  
 Bere suzko gurdíyan,  
 Zabaldurik argiera  
 Sortitz<sup>1</sup> guzti-guztian;  
 Ala beeko zelaiyetan,  
 Nola goiko mendiyan;  
 Ala itur urdiñean,  
 Nola pitsdun ibaiyan!

Zer gozoro, goizetikan  
 Irtetzen dan lanera,  
 Gari bizikariya eman  
 Bear duan lurrera!  
 Zér gozoro, biurtzen dan  
 Illuntzean echera,  
 Sorotikan, nekatutrik,  
 Atseden bat eitera;  
 Echetar maitatuekin  
 Biyotza poztutzera!  
 ¡Zér gozoro, jachitzen dan  
 Jayak ospatutzera,<sup>2</sup>  
 Mendartean sarturikan  
 Dagoan ibarrera!  
 Laño bat ez datos bere  
 Barjakinde<sup>3</sup> chauera,<sup>4</sup>  
 Satitutzen<sup>5</sup> duan poza  
 Beregandik kentzera,  
 Naigabea, kezka, miña,  
 Biyotzean sartzera.

¿Nork utziko du, billatutzeko  
 Bertatik joanik, urea,  
 Mendiyetako bizitza gozo,  
 Naigaberikan gabea?  
 ¿Nork lagako du, beretan dagon  
 Maitagarrizko pakea,  
 Baldin ureaz eta zillarraz  
 Badatorkigu nekea?

## II.

Zér samiñki bizitzen dan  
 Bat erritik aldenik!  
 ¡Zer samiñki, lagun aide,  
 Guraso bat gaberik!  
 ¡Zer samiñki, dagonean  
 Meatze<sup>6</sup> bat zulorik,

Andikan zér irtengo dan  
 Pentsatutzen bakarrik!...  
 ¡Zéñ ederra dagon goiza!...  
 Baña arentzat... alperrik,  
 Daukalako biyotza chit  
 Diru-nayez beterik.

(1) Naturaleza.—(2) Celebrar.—(3) Conciencia.—(4) Puro.—(5) Gozar.—(6) Mina.

Ez du beretzat sortitzak  
 Atseginiik *jez* pozik!  
 Zergatikan zorigaitzak  
 Daukan azpiraturik.  
 Beti dago nozitutzen;<sup>1</sup>  
 Beti dago tristerik;  
 Beti *jbai!* negarrez beti,  
 Chit sarritan esanik:  
 „*Nola nintzan jo zoriya!*  
*Nola,* zugan tinkerik,<sup>2</sup>  
 Urrundetu gurasoak  
 Dauzkadan lur maitetik?  
 „*Nola nintzan, nere lagun*  
 Maite danak utzirik,  
 Aldendu, zañ birakorra<sup>3</sup>  
*Ziñan pentsa gaberik?*»  
 .....  
 „*Amerika! ¿zenbat dira*  
 „*Zenbat!* zugaz zurtunik,  
 Irten beren erritikan,  
 Gurasoak lagarik,  
 Usterikan biurtzea  
 Diruz oso beterik?...  
 „*Eta zenbat itzul dira?*....  
 Ez joan ziran erdirik.  
 Ez egiyaz; an ill dira,

Lagun bat gabetanik,  
 Urrun dagon beren Ama  
 Maiteaz oroiturik,  
 Beragandik iges egin  
 Zutelako damurik,  
 Barkaziyoa biyotzez  
 Jainkoari eskarik.  
 .....  
 Eta biurtu diranak  
 Jayotz erri maitera,  
 „*Zér ekarri dute beren*  
 Gurasoen echera?...  
 „*Zenbat aldiz etor diran*  
 An ezurrak ustera!  
 „*Zenbat aldiz, atsekabez,*  
 Miñez Ama jartzera!  
 „*Zenbat aldiz, negar-malkoz*  
 Zelaiyak bustitzera!  
 „*Zenbat aldiz, sort-echetik*  
 Zoriona kentzera,  
 Zorion aren eguzkiya  
 Lañoz estalitzera,  
 Len gozoak ziran toki  
 Aek beltzez jaztera,  
 Beretan zorigaitzaren  
 Aziya zabaltzera!  
 .....  
 Nor irtengo da jayotz-echetik,  
 Topatu nairik urea,  
 Baldin sarritanurrean ordez  
 Arkitzen bada gosea?  
 „*Nork opako du, Amaren biyotz*  
*Biguña miñez lertzea?*  
 „*Nork naikidako<sup>4</sup> du, sort-erritik*  
*Aldendurikan, iltzea?*

KARMELO

ECHEGARAY-KOAK.



(1) Padecer.—(2) Fijarse.—(3) Voluble.—(4) Desear.